



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 13a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentutaldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra. Nafarroa Bai parlamentutaldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan. Mozioa Erretiratzea (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ikuskizun elebidunak sortzen direnean hizkuntza-aberastasuna sustatzeko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, arte-ehun profesional bat garatze aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko zertan geldituko den Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).
- Galdera, dantzaren mundua babeste aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Valle del Roncal gutxitu psikikoen zentroa kudeatzeko kontratuari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (11. or.).
- Galdera, zerbitzuen zuzentara egokitzeak eragin dezakeen kostuari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (12. or.).

- Galdera, Nafarroako Kulturaren Behatokiari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, oihan biomasa ekoizteko gaitasunari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko txosteneko gomendioak aplikatzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- Galdera, musika klasikoaren zabalkundea egiteko kontusailek ukitutako udalei eta entitateei bidalitako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko gaixoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea onetsi zen adingabeen arazoei aurre egiteko xedearekin, orotariko ikuspe-

gi batetik, gizarteko talderik ahulenetariko bat baita, bai eta haien orotariko garapena bultzatu eta bizi maila duina bermatzen duten ongizaterako politikak garatzeko xedearekin ere.

Foru lege hau indarrean egon den lau urteetan, agerian geratu da beharrezkoa zela legea aplikatzerakoan detektatutako zenbait hutsune eta gabezia betetzea, bai eta adingabeen eta gaur egungo gizartearen beharrezko eskakizunetara hobeto egokitutako legezko marko bat eskaintzea ere. Behar hori agerikoa da adopzioaren alorrean.

Adopzioari buruzko arauak onesterakoan, Estatukoak nahiz autonomia erkidegoetakoak, gehien eztabaidatutako gaietako bat izan da adopzio eskatzaileen adinari eman beharreko garrantzia, haien egokitasuna baloratze aldera.

Oro har, adopzioarako gaitasuna Kode Zibilaren 175. artikuluan araututa dago. Xedapen horretan, bi baldintza besterik ez dira ezartzen: adoptatzailea 25 urtetik gorakoa izatea; adopzioa bi ezkontideek egiten dutenean, bietako batek adin hori beteta izatea; eta, betiere, adoptatzaileak adoptatuak baino 14 urte gehiago izatea, gutxienez.

Hala ere, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 74. c) artikuluan ezartzen denez, geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeen adopzioari dagokionez, arestian aipatutakoaz gain, beharrezkoa da, alde batetik, adoptatzaileen batez besteko adinaren eta adingabe adoptatuaren adinaren arteko aldea ez izatea 45 urte baino gehiagokoa, eta adoptatzaileetariko batek ere ez ditzala izan 60 urte baino gehiago. Baldintza hori Foru Komunitatean bakarrik da aplikatzekoa, modu orokorrean aurreikusitakoez gain.

Aipatu muga horren ondorioz, adopzio eskaerak, nazio barnekoak nahiz nazioartekoak, automatikoki ukatzen dira, baldin eta eskatzaileek foru legean ezarritako adin mugak gainditzen badituz-

te. Eskaerei uko egite horrek eragozten du egiaz baloratzea, kasu bakoitzean eta beste inguruabar batzuk kontuan hartuta, zer den adingabearentzat egokiena.

Horrenbestez, eta adina ez dadin izan adopzio eskatzaileen egokitasuna ebaluatzeko garaian automatikoki bazterten duen faktorea, beharrezkotzat jotzen da aipatu foru legearen 74. c) artikuluan ezarritako muga kentzea eta gainerako irizpideen araberrako ebaluazioa egitea.

Adopzioari buruzko gaur egungo araudian bada hobetu beharreko bigarren alderdi bat; hain zuzen, nazioarteko adopzio eskaerak bi herrialdeetan edo gehiagotan aldi berean aurkeztu ahal izateko aukera, halako moduz non espedienteak aldi berean izapidetu daitezkeen, betiere aukeraturako herrialdeetako batean lehen esleipena egindakoan izapidetzen ari diren gainerako eskabideak bertan behera uzteko baldintzarekin. Zenbait autonomia erkidegotan jada balia daitekeen aukera horrek ahalbidetzen du adingabeen nazioarteko adopzio prozesuak arinagoak izatea.

Adopzioari buruz egin beharreko hirugarren eta azken urratsa da lege maila duen arau baten bidez ezartzea eskatzaileen egokitasun deklarazioak ebazteko gehieneko epea, bai eta Administrazioak ezinbestekoa den ebazpena eman gabe epe hori igarotzeak izanen dituen ondorioak ere.

Adopzio prozesuei buruzko alderdiez gain, bidezkoa dirudi haurren eta nerabeen betebeharrei buruzko zenbait zehaztapen sartzea, haiek protagonismo handiagoa izan dezaten, eta, ondorioz, ardurakidetzat handiagoa izan dezaten tolerantzia eta legearen eta gainerako pertsonen eskubideen errespetuan oinarritutako gizarte bat lortze aldera.

Azkenik, foru lege honen bidez sortuko da Nafarroako Adingabearen Kontseilua, Nafarroan adingabeekin lan egiten duten entitate eta elkarteek parte hartzeko foro gisa. Kontseiluaren helburuak honakoak izanen dira: haurrak babestearen arloko proposamenak behatu, aztertu eta egitea, objektibotasuna, profesionaltasuna eta independentzia abiapuntu gisa hartuta.

Artikulu bakarra. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen aldaketak.

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari ondoko aldaketak egin zaizkio: .

1. 29. artikuluko 1. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“Legeria zibilak adingabeei beren guraso, tutore edo zaintzaileekiko ezartzen dizkien betebeharrrez gain, familia, hezkuntza eta gizarte bizitzan parte hartzeari dagokionez, betebeharrak hauek izanen dituzte, besteak beste:

a) Nahitaezko hezkuntzan ikastea, horrela beren prestakuntza lortu eta beren nortasuna osoki garatzeko. Ikastetxera joan beharko dute eta bertan bizikidetzarako arauak errespetatu beharko dituzte.

b) Ikasketak egiten dituzten ikastetxeko irakasleak eta gainerako langileak, bai eta ikaskideak ere, errespetatzea.

c) Aitortzen zaizkien eskubideen titulartasunari eta erabilerari dagozkien betebeharrak eta erantzukizunak beren gain hartu eta betetzea.

d) Gizarteko bizikidetzat arauekin bat datorren jardueratara zibiko bat izatea, tolerantzia eta beste pertsonen eskubideen errespetua oinarri.

e) Ingurumena eta kultura ondarea eta ondare historikoa errespetatzea eta hura zaintzen eta hobetzen laguntzea.

f) Jabari publikoko ondasunak eta, bereziki, hiri-ondarea errespetatzea.”

2. 74. artikuluko c) letra indarrrik gabe utzi da.

3. 79. artikuluarik bigarren lerrokada gehitu zaio. Hona hemen testua:

“Nazioarteko adopzioa eskatzen dutenek eskatu ahalko dituzte aldi berean bi herrialdeetan edo gehiagotan adoptatzeko eskaerak, baina herrialde horietakoren batean esleipena eginez gero, izapidetzen ari diren gainerako eskaerak bertan behera geratuko dira.”

4. 81. artikuluarik 1. bis idatz-zatia gehitu zaio. Hona hemen testua:

“Egokitasunari buruzko ebazpena emanen da deklarazio-eskaera jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez, Administrazio Publikoan aurkeztu eta sei hilabeteko epean. Epe hori iraganda, ulertuko da eskatzaileek egokitasun deklarazioa lortu dutela. Epe horren barruan gehituko dira azken ebazpena emateko beharrezkoak diren administrazio-oharrak, elkarriketak, saioak, txostenak, ebaluazio psikosozialak eta gainerako egintzak.”

5. 82. artikulua aldatu egingen da. Hona hemen testua:

“1. Nafarroako Adopzioen Erregistroa sortu da.

2. Nafarroako Adopzioen Erregistroaren araudia erregelamendu bidez garatuko da.”

6. VIII. titulua sartu da, honako izenburua izanen duena: "Nafarroako Adingabearen Kontseilua."

"109. artikulua. Sorrera.

1. Nafarroako Adingabearen Kontseilua sortu da, haurren eta nerabeen sustapen, arreta eta babesaren arloan aholkularitza, parte-hartze eta kontsultarako eginkizunak dituen organo kolegiatu gisa.

2. Funtzionamenduaren ondoriotarako, Nafarroako Adingabearen Kontseilua atxikiko zaio adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuari.

110. artikulua. Eginkizunak

1. Nafarroako Adingabearen Kontseiluak honako eginkizun hauek izanen ditu:

A) Aholku emanen du, aginduzko txosten ez lotesleen bidez, ondokoei buruz:

a) Adingabeen babesa arautzeko foru lege aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak.

b) Adingabeen babesari eta arretari buruzko planak eta programak.

c) Adingabeen babesaren arloko jarduketan urteko programa eta kasuko urteko oroitidazkia.

B) Kontsulta organoa izanen da eta txostenak egiten ditu Nafarroako Gobernuak edota haren departamentuek egiten dizkieten galdeei buruz.

C) Parte-hartze eginkizunak, toki entitateek eta gizarte erakundeek egiten dizkieten proposamenen eta ekimenen eztabaidaren bidez, adingabeekin zerikusia duten gaien inguruan:

a) Adingabeen babesarekin zerikusia duten planak, programak edo neurriak.

b) Adingabeekin zerikusia duten ikerketa programak, kongresuak, mintegiak edo antzekoak.

c) Legezko eta erregelamenduzko xedapenek zehazki esleitzen dizkieten gaiak.

2. Nafarroako Adingabearen Kontseiluak txostenak eskatu ahalko dizkie Nafarroako Gobernuko departamentuei eta Nafarroako Arartekoari, adingabeen eskubideen defentsaren eta babesaren arloan dituzten eginkizunak bete ahal izateko.

111. artikulua.- Antolaketa.

1. Kontseilua eratzen denetik sei hilabeteko epean edo foru lege honek indarra hartzen duenetik gehienez ere bederatzi hilabeteko epean, Nafarroako Adingabearen Kontseiluko Osoko Bilkurak, lehendakariak proposatuta, bere antolakuntza eta funtzionamenduaren Erregelamendua onetsiko du.

2. Dituen eginkizunak bete ahal izateko, Kontseiluak baliabide materiak eta giza baliabide nahiakoak izanen ditu. Baliabide horiek adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuak emanen dizkio.

3. Kontseiluak batzordeak eratu ahalko ditu, haren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduak xedatzen duenari jarraikiz.

112. artikulua. Kontseiluaren osaketa.

1. Gobernu Kontseiluak kide hauek izanen ditu, gutxienez:

a) Adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuko kontseilaria, Kontseiluko lehendakaria izanen dena.

b) Adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuko bi ordezkari. Horietako bat Kontseiluko lehendakariordea izanen da.

Lehendakariordeak lehendakariaren ordeztuko da hura kanpoan dagoenean, edo gaixo, edo haren postua aldi baterako hutsik dagoenean. Halaber, lehendakariak esleitzen dizkion edo erregelamendu bidez ezartzen diren eginkizunak izanen ditu.

c) Adingabeen babesarekin eta arretarekin lotura zuzena duen departamentu bakoitzeko ordezkari bat, zuzendari nagusiaren maila izanen duena.

d) Gehienez ere sei ordezkari, bat entitate bakoitzeko, Nafarroako Gobernuaren kasuko erregistroan inskribatuta dauden eta adingabeen babesaren eta arretaren arloan diharduten erakunde edo elkarte nagusietakoak.

e) Gehienez ere sei ordezkari, bat entitate bakoitzeko, kasuko administrazio erregistroetan inskribaturik dauden eta adingabeen eskubideak defendatzeko eraturako elkarrekin.

f) Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazio lau ordezkari, zeinetatik hiruk, gutxienez, izanen baitute hautapen bidezko karguaren izaera.

2. Kontseiluko idazkariak zuzenbidean lizentziaduna eta adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuko funtzionarioa izan behar du, eta hitzarekin baina botorik gabe jardunen du.

3. Adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuko kontseilariak izendatuko ditu kontseilukideak, lau urtetako. Ordezkatutako erakunde proposamenei, halakorik egiten badute, jaramon egingo zaie."

Xedapen gehigarri bakarra.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriko ditu adingabeen babesaren arloan eskuduna den departamentuaren eskura, adopzio eskaera egiten dutenen egokitasunari buruzko eskabideen izapidetzea eta ebazpena arintzea ahalbidetze aldera.

Lehen xedapen iragankorra. Ebatzi gabeko espedienteak.

Lehena. Foru lege honen 2. eta 3. idatz-zatiak aplikatzekoak izanen zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ebatzi gabe dituen eskaerei.

Bigarrena. Duela bi hilabete baino lehenago aurkeztutako egokitasun deklarazioak, ebatzi gabe badaude foru lege hau indarrean sartzen denean, gutxienez ere lau hilabeteko epean ebatziko dira.

Epe hori iraganda, ulertuko da eskatzaileak egokitzat jo direla.

Bigarren xedapen iragankorra. Nafarroako Adingabearen Kontseilua eratzea.

Adingabeen babesaren arloan eskuduna den kontseilariak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Nafarroako Adingabearen Kontseilua foru lege hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epean eratu dadin.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Zangozako Udalak zenbait urte daramatza hiriko autoen zirkulazioa berrantolatu nahian. Berrantolamendu horrekin batera, askotan landu da zubi berri bat egiteko aukera; izan ere, gaur egun hirirako sarbide den zubia arriskutsua da.

Egoera horren aurrean, Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanzek adierazi zuen inbesti-

dura eztabaidan legegintzaldi honetan onetsiko zela 2010-2017 urteetarako Errepideen Plan Zuzendaria, eta bertan jasoko zela Zangozako zubi berria.

2010-2017 urteetarako Errepideen Plan Zuzendaria idatzi gabe dago oraindik. Nafarroako Parlamentuak erabaki proposamen bat ere onetsi zuen, eta haren bidez Nafarroako Gobernua premiatu zuen aipatu plana lau hilabeteko epean aurkezzean Parlamentuan.

Ikusirik errepideen plan zuzendari berriak daraman atzerapena, eta ez dakigunez noiz eta nola beteko liritekeen plan horretan jasotako proiektuak, ez eta Zangozako zubi berriak lehentasunik duen planaren barruan ere, eta kontuan hartuta Zangozak ezin duela beste legegintzaldi bat egon zubi berririk gabe, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zortzi hilabeteko epean aurkez dezan zubi berriaren behin betiko proiektua.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan Zangozako zubi berria 2011 amaitu baino lehen bukatzeko.

Iruñean, 2009ko azaroaren 4an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Adieraztea Socialistas del Parlamento Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena Adingabearen

Nafarroako Kontseilua sor zezan, erretiratu izanaren berri izan duela.

Mozio hori 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, ikuskizun elebidunak sortzen direnean hizkuntza-aberastasuna sustatzeko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, ikuskizun elebidunak sortzen direnean hizkuntza-aberastasuna sustatzeko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikei buruzkoa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer politika ari da garatzen Kultura eta Turismo Departamentua Nafarroako artisten ahalegina babesteko, hain zuzen ere horiek foru erkidegoko hizkuntza-aberastasuna sustatzen laguntzen dutenean euskarazko eta gaztelaniazko ikuskizun elebidunak sortuz?

Iruñean, 2009ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, arte-ehun profesional bat garatze aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, arte-ehun profesional bat garatze aldera Vianako Printzea Era-

kundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer politika ari da garatzen Kultura eta Turismo

Departamentua gure foru erkidegoan ehun artistiko profesionala garatzeko eta arte eszenikoetako gaur egungo eta etorkizuneko artisten sormen gaitasunak garatzea ahalbidetzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko zertan geldituko den Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan geldituko den Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zertan geldituko da Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian?

Iruñean, 2009ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, dantzaren mundua babeste aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, dantzaren mundua babeste aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer politika ari da garatzen Kultura eta Turismo Departamentua babes berezia emateko dantzaren munduari eta Nafarroako arte eszenikoetako sor-kuntza ausartenei?

Iruñean, 2009ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Valle del Roncal gutxitu psikikoen zentroa kudeatzeko kontratuari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Valle del Roncal gutxitu psikikoen zentroa kudeatzeko kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, dagokion batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Iruñeko Valle del Roncal gutxitu psikikoen zentroko ezgaitasun psikiko ez oso larria, larria eta sakona duten pertsonen arreta emateko zerbitzua kudeatzeko kontratua arautzen duen baldintzarrietan, ondoko esaten da, zehazki, "Kontratua kalifikazioa eta iraupena" izeneko atalean:

“Kontratuaren iraupena izanen da 2008ko urriaren 23tik 2009ko abenduaren 31ra artekoa. Kontratua luzatu ahalko da aldeek hala adosten badute espresuki. Hala ere, kontratuaren gehieneko iraupena, balizko luzapenak barne, lau urtekoa izanen da.”

- Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ba al du asmorik Mapfreri Valle

del Roncal zentroa kudeatzeko esleitutako kontratua luzatzeko?

Hala bada,

- Zer dela eta erabaki du Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak kontratua luzatzea?

Iruñean, 2009ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, zerbitzuen zuzentzura egokitzeak eragin dezakeen kostuari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, zerbitzuen zuzentzura egokitzeak eragin dezakeen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Europar Batasuneko zerbitzuei buruzko zuzentzura egokitzeko foru lege aurreproiektuaren zirriborroan ezartzen denez, derrigorrezkoa izanen da toki administrazioek leihatila bakarra edota administrazio elektronikoa eta urruneko administrazioa bezalako baliabideak izatea administrazio izapideak egiteko (8.1.5 artikulua).

Horren ondotik esaten da Toki Administrazioa prozedura berri horietara egokitze aldera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak entitate horiei lagundu “ahalko” diela, gaitasun ekonomiko nahikorik edo kudeaketarako gaitasun nahikorik ez duten kasuetan.

Bada, uste dugunez toki administrazioek, oro har, ez dutela gaitasun ekonomiko edo kudeaketarako gaitasun nahikorik, hau jakin nahiko nuke:

Ahozko galderaren testua

Nafarroako Gobernuaren kalkuluen arabera, zenbatekoa izanen da egokitzapen horren kostua eta zer ehuneko egingen dute balizko laguntza horiek?

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Nafarroako Kulturaren Behatokiari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kulturaren Behatokiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Plangintza estrategikoa kulturaren alorrean duela gutxi zabalduetako kontzeptua da, baina sendotu egin da kultura kudeatzeko prozedura multzo gisa eta, etengabeko aldaketak eta ziurgabetasun gero eta handiagoa nagusi diren mundu honetan, gero eta garrantzi handiagoa du politika publikoen arloan. Bestalde, kultura herrialdeen eta eskualde-

en garapenerako faktore izatearen konbentzimentu areagotu izanak eta kulturaren arteko elkarbizitza areagotu izanak –izan ere, Europa, Espainia eta Nafarroa prozesu horretan murgilduta daude–, kulturaren arloko plangintza estrategikoari protagonismo berezia ematen diote.

Halaxe ulertzen da, baita ere, kulturaren munduan. Urriaren 28an, Nafarroako kultur eragileen talde esanguratsu batek lan jardunaldi bat egin zuen, Parlamentuko talde politiko batzuen ordezkariekin eta Kultura eta Turismo Departamentuko zenbait funtzionarioekin batera, sektorearen egoeraren diagnostia egite aldera. “Plangintza falta” izan zen Nafarroako kulturaren “ahulezien” ataleko lehen ondorioa.

Kultur Ekintzaren Plan Zuzendariari arrakastaz heltzeko zain bagaude ere, Kultura eta Turismo kontseilariak Nafarroako Kulturaren Behatokia abian jartzeko konpromisoa hartu zuen Parlamentuan. Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

1. Gobernuak berresten al du Nafarroako Kulturaren Behatokia abian jartzeko beharra?

2. Gobernuak noiz jarriko du abian behatoki hori?

3. Administrazioiko zer figuraren bidez gauzatu da?

Iruñean, 2009ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, oihan biomasa ekoizteko gaitasunari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, oihan biomasa ekoizteko gaitasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroak oihan biomasa ekoizteko duen ahalmena ezagutze aldera, foru parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

a) Zein da Nafarroan erabil daitekeen oihan biomasari buruzko gutxi gorabeherako kalkulua, eskualdeen arabera xehakaturata?

b) Zein da erabil daitekeen oihan biomasari buruzko gutxi gorabeherako kalkulua, Nafarroako Oihan Ondareko mendien arabera xehakaturata?

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Gaurko egunean, zein da erabilgarri dagoen aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakina?

- Zer diruzaintza-gerakin sortu dira, urterik urte, 2000. urtetik hasita orain arte?

Iruñean, 2009ko azaroaren 4an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko txosteneko gomendioak aplikatzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Adieraztea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos

Ganberak eginiko txosteneko gomendioak aplikatzeari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan duela.

Galdera hori 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, musika klasikoaren zabalkundea egiteko kontusailek ukitutako udalei eta entitateei bidalitako informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du musika klasikoaren zabalkundea egiteko kontusailek ukitutako udalei eta entitateei bidalitako informazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Musika Plan Zuzendariko bi kontusaili buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Informaziorik eman al zaie ukitutako udal eta entitateei aurrekontuetako bi kontusail horiei buruz? Prozedura eta ukitutako udal eta entitate bakoitzari eginiko jakinarazpenaren data jakin nahiko nituzke.

Kontusailak, dituzten kodeengatik, ez dira udal-lentzako dirulaguntzak; beraz, informazioa ez litzaike udalei eman behar, baizik eta talde nafarrei, oso multzo heterogeneoa eta mozioan zehaztu gabe dagoena. Bigarren kasuan bakarrik, eta laguntza eman zaie udalak zehaztuta zeudelako, eskatu zitzaie Tuterako, Lizarrako eta Zangozako kultura-teknikariei eta arlo horretako arduradunei esan ziezaguten lehentasun zehatzik ba ote zuten orienta gintzakeenik dirulaguntza exekutatzekoan. Behin ezagututa proposatutako taldeak –Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Gayarre Operaren Lagunen Elkarteak– haiekin hitz egin zen berriro ere.

Era berean, behin hautatuta lehenbiziko kontusailak ukitutako taldeak, galdera honetako hirugarren puntuan azaldu dugun irizpideari jarraituz, haiekin harremanetan jarri ginen, ekainean, eta beraiek izan ziren beren programak jakinarazi zieten kultur etxeei, hala agintzen baitu zuzenketa-kodeak. Hori bai, lurralde-oreka ahalik eta handiena lortzen saiatu ginen, kultur etxeen egutegi-aukeren arabera betiere.

2.- Zein da garatu nahi den programa zehatza? Aipatu programazioaren xehetasunak: tokiak, datak eta taldeak.

Lehenengo mozioari dagokionez, honakoak izan dira hautatutako entitateak, lekuak eta egunak:

- Kultur etxeetan gauzatu diren musika klasikoko programak

Gayarre Operaren Lagunen Elkartea

Lodosan	urriaren 30ean
Azagran	azaroaren 7an
Beriainen	azaroaren 8an
Zizur Nagusian	azaroaren 15ean
Corellan	azaroaren 20an
Noainen	azaroaren 22an
Elizondon	azaroaren 29an
Mutiloabeheitin	abenduaren 20an
Castejónen	abenduaren 13an

Iruñeko Ganbera Abesbatza

Nova Lux

Beran	urriaren 2an, Nova Lux
Los Arcosen	urriaren 4an, Nova Lux
Corellan	urriaren 17an, Ganb. Ab.
Zizur Zendea (Larraian)	urriaren 18an, Ganb. Ab.
Auritzen	urriaren 31n, Ganb. Ab.
Peraltan	azaroaren 1ean, Ganb. Ab.

Nafarroako Ganbera Abesbatza

Zizur Nagusian	urriaren 12an
Orkoienean	azaroaren 8an
Berriozarren	azaroaren 28an
Barañainen	azaroaren 29an
Atarrabian	azaroaren 30ean
Tafallan	abenduaren 12an
Baztanen	abenduaren 13an

Bigarren moziolari dagokionez, honakoak izan dira hautatutako entitateak, lekuak eta egunak:

	Programa	Programa
Heria	Nafarroako Orkestra Sinfonikoa	Gayarre Operaren Lagunen Elkartea
Tutera	abenduaren 3an (NOS eta Orfeoia)	
Lizarra	abenduaren 9an	
Zangoza		abenduaren 5ean

3.- Zer irizpide erabili da Nafarroako taldeak hautatzerakoan, aipatu kontusailletako lehenengotari dagokionez?

Mozioan ez zenez aipamen zehatzik egiten, Nafarroako musika klasikoko elkarte nagusietako batzuk hautatu dira.

Tamainagatik eta ezaugarriengatik eskaintza dibertsifikatuago batera egokitzen ahal diren musika elkarteak hautatu ziren.

Taldeak hautatzerakoan, musika klasikoko generoen arteko aniztasuna eskaintzen saiatu gara; halatan, ganbera musikako taldeei eman zaie aritzeko aukera: AGAOIruñeko Ganbera

Abesbatzari eta Nafarroako Ganbera Abesbatzari (azken honek Remachari oso-osorik eskainitako programa bat aurkeztu zuen haren heriotzaren hogeita bosgarren urteurrenean), eta Gayarre Operaren Lagunen Elkarteko Premier Ensemble Opera Abesbatzari (Italiako eta Frantziako opera erromantikoko koruekiko programa batekin), opera-errepertorioarekin bereziki ohitu gabeko publikoari hurbiltze aldera musika mota hori.

Iruñean, 2009ko urriaren 2an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera (PES 220). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Abaunzko haitzuloan esku hartu du udan.

Proiektu horri esker, indusketa prozesuan haitzuloaren barruan utzitako jalkina hustu da, eta sasi eta zabor guztia garbitu da.

Ingurumen Departamentuarekin lankidetzan, haitzuloaren itxitura sendotu da; une honetan, burdin sare bat, hormigoizko murrubat eta esku-hartze horren aurretik haitzuloak zuena baino itxitura gogorragoa ditu haitzuloak. Itxitura berri horri esker, kobaren ahoaren jatorrizko itxura berreskuratu ahal izan da.

Haitzuloaren sarreran, berriz, plataforma bat egokitu da; izan ere, haitzuloan ia ez zegoen sartzetik, erori eta amildutako arbolak eta harriak zirela kausa.

Arkeologia aztarnei dagokienez, une honetan ez dago beste edozein aztarnategitan baino lapurreta arrisku handiagorik, zeren madeleine aldiko mailak osorik induskatu baitira, eta pieza guztiak berreskuratu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 2an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak, PSNrekin adostutako Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planaren espirituarekin bat, zenbait bilera egin zituen departamentuan, obren dinamika nahiz zein talderentzat eskatzen ziren jarduketak kontuan hartuta egin beharreko jarduketak antolatzeko.

Egin beharreko obren ezaugarriak ikusita, eta aintzat hartuta orobat elizaren inkardinazioa Uxue bezalako herri batean, zeina interes turistiko handikoa baita, eta zer talde zeuden inplikatur, orain egiten ari diren bisitak programatzeko hautua egin zen. Departamentuak erabaki du urriaren 12an, azken bisitaren egunean hain zuzen ere, soilik herriko bizilagunentzat izanen dela bisita, hain da handia nafarrek eta bereziki uxuetarrek erakutsitako interesa.

Hona bisita horien ezaugarriak:

a) Herri guztia hartzen dute.

b) Elizan sar daiteke eta zaharberritze lanak zertan diren ikusi.

c) Turistei irekiak dira; hartara, hartzaileen kopurua zabaldu da, Parlamentuaren eskaerak aurreikusten zuenaz haratago.

Bisitak egiteko prestatu den egutegiak kontuan hartzen du inguruko turismoaren dinamika, bisitarako programatu diren sasoiari eta egunei dagokienez. Abuztuan ibiltzen da turista gehien inguruan, eta larunbatetan eta igandeetan metatzen da batik bat turismo-eskaera. Goiz eta arratsaldeko bisitak, turistei sarrera erraztearren egunean zehar.

Irailean, eskaera nabarmen jaisten denez, eskaintza larunbat eta igandeetan mantentzen da, eguneko bisita batekin.

Urrian, Pilarreko Andre Mariaren zubira arte mantentzen da eskaintza, hortik aurrera eskaera jaisten baita.

Guztira, 29 bisita antolatzen dira; orain arte egindakoek izan duten erantzuna ona izan dela esan daiteke. Gaur arte, 400 pertsona inguruk egin dute bisita; aurreikusitako gehieneko kupoa-ren % 80ko batez besteko okupazioa, alegia. Ez da gelditu turista bat bera ere bisita egin ezinik. Bisita errepikatzea aurreikusita zegoen, kupoa gaindituz gero.

Antolatutako bisitei esker bultzatu da ez soilik elizari buruzko ezagutza, ezpada herriari buruzkoa ere, eta turismoko produktu iraungarria sortzeko balio izan du; izan ere, enpresa batek interesa erakutsi du jarduera horri jarraipena emateko Departamentuak antolatutako bisitak bukatzen direnean.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 2an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko gaixoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko gaixoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako

Reina Sofía Ospitaleko endokrinologiako espezialitateari buruz (PES-238/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Endokrinologiako espezialitatea Reina Sofía Ospitaleko Barne-medikuntzako Zerbitzuan dago sartuta organikoki eta funtzionalki.

Gaur egun, barne-medikuntzako espezialistek artatzen dituzte lehentasunezko arreta behar duten gaixoak, endokrinologoa ez dagoenean.

Halere, Nafarroako Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuarekin batera aztertzen ari gara zerbitzu hori Tuterako Reina Sofía Ospitalearekin koordinatzeko modua.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

